



Euskaltelen EUSKALTELE LIFE zerbitzua instalatzeak eta zerbitzu hori erabiltzeak berekin dakar Bezeroak berariaz onartzea Baldintza Orokorrauek:

EUSKALTELE LIFEREN BALDINTZA OROKORRAK

I.- EUSKALTELE LIFE APLIKAZIOAREN BALDINTZAK

1. ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Dokumentu honen helburua da EUSKALTELE SArean (aurrerantzean, EUSKALTELE) titulartasuneko aplikazioak erabiltzeko baldintza orokorrak ezartzea. Bereziki, aplikazio honen bidez EUSKALTELE LIFE zerbitzua sar daiteke, une bakoitzean aplikazioa eskuragarri dauden gailuetatik (smartphoneak eta tabletaak —iOS nahiz Android—, PCak, MACak...), EUSKALTELEn bezeroak soilik sar daitezke, beraz.

Aplikazioaren bidez zerbitzuan sartzeko, erabiltzailearen identifikatzailea (Euskalteleko helbide elektronikoa, IFZ edo mugikorrenbakia) eta EUSKALTELEn Bezeroaren Gunerako pasahitza idatzi behar dira, aplikazioa erabiltzeko baldintza hauei jarraituz. Euskaltelen erabiltzaile-izena eta pasahitza pertsonalak eta besterenezakin dira, eta erabiltzailearen erantzukizuna da haien konfidentzialtasuna bermatzea. Erabiltzailea izango da Euskalteleko bere erabiltzaile-identifikatzailearekin (helbide elektronikoa, IFZ edo mugikorra) egiten dituen ekintza guztien erantzulea. Erabiltzailearen ardura da bere sarbide-pasahitza hirugarren bati ez ematea. EUSKALTELEk jakinarazten dizu INOIZ ez dizula eskatuko aplikazioa sartzeko pasahitza inolako komunikazio-bidetatik (telefonoa, posta elektronikoa, ohiko posta, SMS, MMS...); beraz, komunikazioaren bati jasozten baduzu informazio hori eskatzeko, ezegin kasurik, eta jakinarazi Euskaltel SArri, 171719ren bidez edo ABUSE formularioaren bidez.

Aplikazioa deskargatuz eta erabiltz lortzen da erabiltzaile-izera (aurrerantzean, erabiltzailea). Izera horrek berekin dakar baldintza hauetan jasozten diren termino eta baldintza guztiak irakurri, ulertu eta onartzea.

EUSKALTELEk eskubidea du baldintza hauek aldatzeko, une bakoitzean indarrean dagoen legeriari egokitzeko. Aldaketa horiek webgunean eta aplikazio(e)an argitaratuko dira, eta argitaratzen direnetik aurrera egongo dira indarrean. Argitaratu ondoren erabiltzaileak zerbitzuak erabiltzen jarraitzen badu, horrek esan nahi du aldataket onartzen dituela.

Aldaketein ados ez badago, erabiltzaileak zerbitzuari uko egin ahal izango dio, hura erabiltzeari utzita.

Aplikazioa sartzeko eta hura deskargatzeko doakoa izango da, erabiltzaileak kontratatutako sarbide-honimizatzaile emandako telekomunikazio-sarearen bidezko konektzioak duen kostua salbu.

2. APLIKAZIOAREN ETA HAREN ZERBITZUEN ERABILERA

EUSKALTELEk eskubide pertsonala, ez-esklusiboa, besterenezina eta mugatua ematen dio bezeroari aplikazioa deskargatzeko, modu mugatu, pertsonal, ez-komertzial eta legezkoan erabili dezan une bakoitzean eskuragarri dauden gailuetan. Guxiniako zehaztapen estandarrek bete behar ditu gailuak, eta aplikazioarekin bateragarria izan behar du.

EUSKALTELEk ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik erabiltzailearen gailuarekiko baterantzatasunen ondorioz sortzen diren anomaliengatik.

Erabiltzaileak onartzen du aplikazio honek ematen dituen eduki eta/edo zerbitzuak bere arrikupean eta/edo erantzukizunpean erabiltzen dituela. Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du aplikazio hau eta aplikazioaren eduki eta zerbitzu guztiak erabilera-baldintza hauei araberako erabiltzea —eta, kasu baliatuz, eskuratzin dituen zerbitzuei dagozkien baldintzen arabera—.

Halaber, konpromisoa hartzen du aplikazioaren zerbitzu eta/edo eduki guztiak ondo erabiltzeko eta ez baliatzeko legez kanpoko jarduerak edo delituak egiteko, ez hirugarren baten eskubideen aurka baliatzeko, ezta jabetza intelektual eta industrialaren gaineko erregulazioa edo aplikatu daitekeen ordenamendu juridikoko beste edozein arau urratzeko ere.

3. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

EUSKALTELEn dira aplikazioaren eskubide guztiak, marken, izen komertzialen eta gainerako bereizgarrien gainekoak, patenteenak eta edukiari eta diseinuari dagozkien jabetza intelektualekoak.

Aplikazioaren eduki guztiak (besteak beste, testuak, grafikoa, irudiak, diseinua eta haien jabetza intelektualeko eskubideak, bai eta markak, izen komertzialak eta bestelako bereizgarriak ere) EUSKALTELEn edo hirugarren baten izenean, eta haiek dituzte eskubide guztiak. Markak, izen komertzialak edo ikur bereizgarriak EUSKALTELEn edo hirugarren baten titulartasunekoak dira, eta ezin da ulertu aplikazioa deskargatzeko, hura sartzeko eta hura erabiltzeko inolako eskubidenik ematen dionik erabiltzaileari marka, izen komertzial eta/edo ikur bereizgarri horien gainean.

4. BERMEEN SALBUESPENA. ERANTZUKIZUNA

EUSKALTELEk ez du bermatzen aplikazioa une or sartzeko moduan egongo denik eta funtzionamendu jarraitua izango duenik. Beraz, EUSKALTELE ez da erantzulea izango erabiltzaileari kalte-galeraren bat sortzen bazaita aplikazioa eskuragarri ez dagoelako, sarbide-akatsen bat dagoelako edo jarraitutasunik ez duelako.

Aplikazioa gailuetan deskargatu, hura sartu eta hura erabiltzeko ez du esan nahi EUSKALTELEk kontrolatu behar duenik birusik, harririk edo bestelako elementu informatiko kaltegarriak izan ez dezan. Erabiltzailearen ardura da programa informatiko kaltegarriak detektatzeko eta desinfektatzeko tresna egokiak izatea.

5. PRIBATUTASUN-POLITIKA

Datu pertsonalak jasotako araudiari jarraituz, EUSKALTELEk Bezeroari jakinarazten dio aplikazioa deskargatzearen eta hura sartzaren ondorioz jasotako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Fitxategi hori EUSKALTELEk berak sortua da, beraren ardurapean dago eta kontratu-harremana mantentzeko eta kudeatzeko erabiltzen da. Zehazki, Euskaltel Life zerbitzua aplikazioaren bidez emateko.

Halaber, EUSKALTELEk jakinarazten dizu ezen, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren eta horretarako aplikatu daitezkeen araudien arabera, noiznahi erabili dezakezula datu pertsonaletara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurka egiteko eskubidea. Horretarako, idatzi behar diozu, postaz, EUSKALTELEi, egindako eskeroa adieraziz eta NANaren folokopiarekin, helbide honetara: 3 posta-kutxa F.D. 3 FD posta-kutxa, 48160 Deio (Bizkaia). Bestela, Bezeroentzako Arreta Zerbitzura deitu dezakezu (1717, edo haren ordez dagoakiona), edo mezu elektronikoa bidali info@euskaltel.com helbidera.

6. ADINGABEAK

Oro har, aplikazio honetako zerbitzuak erabiltzeko, adingabeek guraso, tutore edo legezko ordezkarien baimena izan behar dute. Haien erantzukizunpekoak izango dira beren kargu dituzten adingabeek aplikazio honen bitartez egiten dituzten ekintza guztiak. Espresuki adierazten ez baduzkate, 18 urtefik gorakoek soilik erabili ahal izango dute zerbitzua.

7. IRAUPENA ETA BUKAERA

Aplikazio haur erabili ahal izango da erabiltzailea EUSKALTELEn BEZERO den artean. Edonola ere, EUSKALTELEk aldatetaki egin ahal izango ditu aplikazioan, 1. puntuari adierazitakoari jarraituz.

II.- EUSKALTELE LIFE ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

1. HELBURUA

Baldintza hauek onartuta, EUSKALTELE LIFE zerbitzuaren hornidura kontratatzen du Bezeroak, egindako hautaketaren arabera. Baldintza hauetan berariaz ezartzen ez den guztiarenaz, EUSKALTELEn ZUNTZ OPTIKOAREN BALDINTZA OROKORREtan ezarritako aplikatuko da. Bi baldintza bat ez badotza, eranskini honetan ezarritako lehenetsiko da. BEZEROak posta elektronikoa bidez edo telefonoz kontratatutako zerbitzuak aldatzeko eskatuz gero, baldintza orokor hauek arautuko dituzte zerbitzu berriak; beraz, ez dago beste kontratu bat sinatu beharrik.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

EUSKALTELE LIFE zerbitzua erabiliz, urrutitik kontrola dezake bezeroak bere etxean gertatzen dena, eta hodeiko zerbitzari batean bilgintzara deklatatzen duena. Horretarako, zenbait sentsore eta gailuri konektatutako kontrol-ekipamendu baten bidez ematen da zerbitzua, unitate zentral batetik, eta erregistratutako datuak hodeian kontrolatzeko eta bilgintzarako arauak konfiguratzeko sistema bat erabiliz.

Soilik zerbitzuaren funtzionamendu teknikoari dagozkion gorabeheren arreta eta konponketa telefono bidez egiteko zerbitzu bat ere badu zerbitzuak.

EUSKALTELE LIFE ez da segurtasun-sistema bat, ez eta alarma bat ere; beraz, haren komertzializazioa eta zerbitzu-eskaintza ez dira segurtasun pribatuaren araudiaren araberakoak. Zerbitzua ez dago konektatuta inolako alarma-zentralletara, eta ez dio abisurik bidaltzen Polizia.

Bestalde, ke-detektatzailearekin konektatuta ere, sistema ez da jolzen suteak detektatzeko sistema pasibolatu.

Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik eskaintzen da zerbitzua.

3. ZERBITZUAZ BALIATZEKO BEHAR DEN EKIPAMENDUA

Bere premien arabera konfiguratu dezake Bezeroak zerbitzua, behar dituen sentsoreak eta gailuak gehituz Unitate Zentralari (zerbitzuaren mugen barruan, behere). Kontratu honen arabera zerbitzuak bakarrik eman ditzakete entregatzen diren ekipoei, eta ezin dira konfiguratu beste inolako ekipoei.

Unitate Zentral bat eta sentsore bat (edo antzeko gailuren bat) izan behar ditu zerbitzuaren guxieneko konfigurazioak.

Ekipo hauekin konfiguratu daitezke zerbitzua:

A.- UNITATE ZENTRALA, ALOKAIRUAN

Ekipo elektronikoa bat da Unitate Zentrala, eta hau du eginkizuna: sentsoreak eta gailuak zentralizatu eta kontrolatzea, eta erregistratutako datuak hodeiko zerbitzari batera konektatzea. Haririk gabeko teknologiaz egiten da Unitate Zentralaren eta gailuen arteko konexioa.

Banda zabaleko Interneterako konexioa izan behar du Unitate Zentralak (guxiniako abiadura, 8 Mb/s), bai eta elikadura elektrikoak ere.

Bezeroari alokairuan emango zaion Euskaltelen jabetzako ekipoa da Unitate Zentrala, eta Zuntz Optikoaren kontratuko ekipook alokatzeko baldintzak aplikatuko dira.

B.- SENSOREAK ETA GAILUAK

Sierosketa-erregimenean emango zaizkio Bezeroari, eta indarrean den legediaren berme-erregimena izango dute.

Pilak edo bateriak behar dituzte, funtzionatzeko, sentsoreak eta gailuak; kasu batzuetan, elektrizitate-sarrera konektatu daitezke. Edonola ere, bezeroari dagozko sentsoreen pilak kargatuta dauden begiritzea eta, behar denean, haiek aldatzea.

Gerora sentsore eta gailu berriak ipintzeko aukera baztertu gabe, hauek dira merkatutzean zerbitzua emateko egun daudenak:

- IREKIERA-SENSOREA:
- MUGIMENDU-SENSOREA: KE-SENSOREA:
- HD KAMERA ETA AUDIODUN HD KAMERA:
- UR-SENSOREA:
- ENTXUFE ADIMENDUNA:

Posta elektronikoz edo gailu mugikorretarako berariaz garatutako aplikazioaren bidez bidali daitezke deklatatutako jarduerari buruzko abisurak. Bestalde, Unitate Zentrala itzalita edo lineaz kanpo baldin badago, abisu bat sartuko da, lehen aipatutako moduan.

4. ZERBITZUAREN KONTROLA ETA KUDEAKETA

Bezeroak bakarrik kontrolatu eta kudeatuko du zerbitzua. Horretarako, webgune bat jarriko du Euskaltele Bezeroaren zerbitzura. Euskaltel Life instalazioa kontrola eta kudea dezan, bai eta gailu mugikorretarako aplikazio bat ere. Baterako zein besterako, erabiltzaile-izena eta pasahitza behar dira sartzeko.

5. ZERBITZUAREN MUGAK ETA ERANTZUKIZUNIK EZA

Zerbitzuak funtziona dezan, elikadura elektrikoak behar dute Unitate Zentralak, kamerak eta entxufe adimendunak. Sentsoreak, berriaz, pilak edo bateriak behar dituzte, kargatuak.

Halaber, Interneterako etengabeko konexioa ere behar du Unitate Zentralak (8 Mb/s, gutxienez).

Haririk gabe konektatzen dira elkarrekin sentsoreak eta Unitate Zentrala; beraz, Bezeroaren eheko interferentziak (iraunkorrak edo aldan behingoko) oztopatu egin dezakete Unitatearen funtzionamendua.

Zerbitzuak ondo funtzionatzeko ezinbestekoak diren ekipamendua behar bezala instalatzea, Bezeroak hitzematen du ez duela aldatetarik egingo instalatutako ekipoen kokapenean edo konfigurazian.

Ez segurtasun-zerbitzua, ez suteak prebenitzeko ez denez, Euskaltel ez da inoliz izango lapurreta, oste edo legez kanpoko beste jardura batzuen erantzulea, ez eta bezeroaren higiezinaren eta/edo ondasun eta altzarriaren kalterik eragiten duten sute, uhaldre edo beste zehinahi ezbeharrena ere.

Euskaltel ez da erantzulea, inoliz:

Bezeroak gaizki erabiltzen baditu gailuak edo zerbitzua.

Bezeroak ez baditu behar bezala erabiltzen zerbitzua ematean entregatzen zaizkion datuak, irudiak eta txostenak, edo haiek hedatzen baditu.

Zerbitzuak huls egiten badu Interneterako konexiorik ezagatik, interferentziengatik edo elektrizitate-hornidurarik gabe geratzeagatik. Bezeroak abisurak edo alertak bidaltzen baditu larrialdi-zerbitzuetara zerbitzuaren funtzionamenduz jasotako datuak direla eta.

Euskaltele ez du erantzukizunik zuzenean edo zeharkako kalte-galerengatik eta/edo haien ondoriozkoengatik, barne direla lortzen ez den irabazia edo ekizpen-galera.

6. BEZEROAREN BETEBEHERRAK IRUDIAK ETA/EDO SOINUAK JASOTZEKO GAILUAK DIRELA ETA (ETXEKO EZ DEN ERABILERA)

Kasu hauetan bakarrik aplikatuko da atal hau: Bezeroak HD kamera zerbitzua edo audiodun HD kamera eberako edo familiarako ez den erabileraen baterako kontratatzen duenean eta grabatutako irudiak pertsonak identifikatzeko baliu dutenean.

Bezeroak bakarrik hartzen du bere gain bideozaintza-jarduerak; beraz, hari bakarrik dagozko irudi eta/edo soinuen tratamenduaren gaineko erantzukizuna, bera baita bideozaintza-fitxategiaren arduraduna.

Irudi- eta/edo soinu-tratamendu horrek erantzukizunak eta betebeharrak dakartzakola jakinarazi zaio Bezeroari, bera baita tratamenduen arduraduna, 15/1999 Lege Organikoak, hura Garatzeko Araudiak eta Bideozaintzari buruzko 1/2006 Aginduk dietenari jarraituz.

- Hona datuen babesari dagozkien zenbait betebehar:
- Testu hau dararamten zenbait ohar jarraiz: "DATUEN BABESARI BURUZKO 15/1999 LEGE ORGANIKOA. BIDEOZ ZANTZEN DENE EREMIUA", eta berariaz aipatzea nor den norberari buruzko datuak eskuratu, aldatu, ezabatu eta haien aurka egiteko eskubidea aplikatu behar duen erantzulea (Datuak Babesteko Espainiako Agenteziaren webgunean dago horretarako erudia: www.agpd.es).
- Bezeroak interesdunen esku jarri behar ditu 15/1999 Lege Organikoaren 5.1 artikuluko diotenen gaineko informazioa duten inprimakia.
- Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatu behar du fitxategia Bezeroak.
- Segurtasun-agiri bat sartu behar du bideozaintza-fitxategiari aplikatu beharreko neurriekin.
- Jaso eta handiki hilobetera, beranduenera ere, ezabatu behar dira ekipamenduen bidez atzitzen diren irudiak eta/edo soinuek.
- Arreta eta erantzuna eman behar die aipatutako eskubideez baliatzeko eskariei.

Aurreko zereandaren oharri ez ziren irudi- eta/edo soinu-tratamenduetarako beste betekizun batzuk ere sor dakizkiokeela jakinarazi dio Euskaltele Bezeroari, tratamendu horren helburuaren arabera, besteak beste.

Irudiak eta/edo soinuek jasotzeari buruzko informazio gehiago, Datuak Babesteko Espainiako Agenteziaren webgunean: www.agpd.es.

7. MATXURAK

Instalatutako ekipoeiaren sortzen den zehinahi arazo edo gorabehera urrutitik konpontzeko aholaginarik egingo dira. Alabaina, urrutitik izan eta arazo konpontzen ez bada, teknikari bat joango da BEZEROaren etxera. Bezeroari dagozko teknikariaren joan-etorriak eragiten dituen gastuak ordaintzea, baldin eta Bezeroarena bada arazoaren edo gorabeheraren ardura, salbu Premium mantentze-zerbitzua bada.